

Zuk diozu erlojua, nik eskuburdina: zain dagoena beti zeozeren
zain egongo da
Zuk diozu etorkizuna, nik beste gezurren bat: historia-
liburuen zama gure sinesmenetan
Zuk diozu helmuga, ni haratago noa, haren ondorengoaz ohartuta:
garaipenaren ondotik hasiko baita guretzat benetako guda
Zuk diozu argia, eta nik haren itzala: kanpoan denak ere bihotz
zati bat uzten du barruan
Guk diogu bakea, guk erabakitzea: bidea norabide hitzaren erdi
soil bat delako
Zuk diozu helmuga ni haratago noa haren ondorengoaz ohartuta:
garaipenaren ondotik hasiko baita guretzat benetako guda
Troiako zaldi bildumarekin bete ditugu gure kortak
gure lorpenen kontra altxatzera kondenaturiko gerrilla gara.